



PRENTSARAKO OHARRA

18/10/03

Bizkaiko Foru Aldundiak ukatu egin dau animaliei emondako tratu txarren ganeko ezelango “salaketa formalik” jaso dauenik

“Bizkaiko Foru Aldundiak Animalien Ongizatearen Legea bermatzen dau”. Holan adierazo dau Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Foru Diputatuak gaur goizean, Talde Mistoak urte honetako apirilean Grumeraneko mendietan inkaututako animalien egoeraren gainean galdetu deutsonean. Horren inguruan, Unzuetak Foru Aldundiak “ez dauela horri buruzko ezelango salaketa formalik jaso” eta animaliak “osasun egoera onean dagozala” argitu dau.

“Jaso diranak, inkautatutako animalien jaube diran abeltzainek eta horreen inguruko beste abeltzain batzuek aurkeztutako idazkiak izan dira, eta baita animalien aldeko *Bere Ahotsa* alkarteko ordezkari batena be”, gehitu dau.

Bilera bat egin ostean, joan dan irailaren 12an animaliak euren jaubei itzuli jakezan, “joan-etorrian, istripuz, hil zan behi bat izan ezik”. Horrez gain, Elena Unzuetak Foru Aldundiak izan dauen “alkarriketaren aldeko jarrera eraikitzailea” azpimarratu dau, eta “larre inguru hori berrantolatze beharrea jarraituko dugula” berretsi dau. Bileran erabagi zan moduan, “denpora gitxi barru inguruko abeltzainen alkarteakaz jesarriko gara, bileran planteau zan proposamena aurkezteko”.

Euzko Abertzaleak taldetik, Jesus Lekerikabeaskoa batzordekideak “joko mediatiko horretan ez sartzeko” eskatu dau. Batzordekide jeltzaleak, “baten batek gai honegaz zarata asko egin gura izan dauela” adierazoteaz aparte, balioan jarri dau Iraunkortasun Saileko beharginen beharra. Eduardo Andrés batzordekide popularra be Aldundiaren alde agertu da, “Foru Aldundiak animaliei emoten deutsen tratu egokiaren ganean ez daukagu ezelango zalantzarik” esanez.

“Garrantzitsuena, gero eta gardentasun handiagoa egotea da, holango zalantzarik sortu ez daiten”, adierazo dau Josean Elegezabal Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak.

Euskal Sozialistakeko, EH Bilduko eta Talde Mistoko ordezkariak, euren aldetik, azpimarratu dabe beharrezkoa dala Aldundiak, udalek eta abeltzainen alkarteak akordioa lortzea. “BFari neurri guztiak mahai ganean jarteko eskatzen deutsagu, arazo hori atoa konpontzeko prozesuari hasierara emonez”, esan dau Mikel Kormenzana EH Bilduko bozeroaleak.

Horri jagokonez, EH Bildu taldeak arauz besteko proposamen bat aurkeztu dau, Foru Aldundiari eskaria eginez, “2012ko urriaren 24an egin zan Bizkaiko Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordean onetsi zan arauz besteko proposamenean adostutako mahai ahalik eta arinen eratu daiten”. Halanda be, ekimena ez da onetsi, Podemos Bizkaia izan dalako aldeko botoa emon dauen bakarra. Lekerikabeaskoa

batzordekide jeltzaleak esan dauenez, proposamenak “ez dakar ezer barririk, orain sei urte onetsi zanagaz alderatuta”, eta “pausu horreekaz guztiakaz konponbidera gerturatzen ari gara”. Talde Popularra eta Talde Mistoak abstenidu egin dira.

GARBIGUNE MOBIKORRAK

Talde Mistoak eskatuta, Elena Unzueta Foru Diputatuak, Foru Aldundiak urriaren bukaeran martxan jarriko dauen garbigune mobikorren proiektua zer izango dan zehaztu dau. Adierazo dauenez, ekimenaren helburua, “denpora mugatu batez” garbigunea udalerrien erdialdera gerturatzea da, hondakinak batzeko zerbitzua emoteaz aparte, “herritarrak sentsibilizetako eta garbigunearen erabileraa sustatzeko”. Une honetan, 55 dira ekimen horretan parte hartzeko interesa erakutsi daberen udalak. Garbiguneak kaltzaiduzkoak izango dira “kolpeen eta ekintza bandaliko posibleen aurrean erresistentzia gehiago eukiteko”.

LURREN FUNTSA

Elena Unzuetak Talde Mistoak planteautako beste gai bat be landu dau. Arturo Aldecoa bozeroaleak lurren funtsaren balantzea eskatu dau, 2011tik 2017ra, eta baita 2018rako aurreikusita dagozan jarduketak be. Unzuetak azaldu dauenez, 2011tik 51 lote esleitu dira. Horreetatik 32 lehenengo instalazinarako izan dira, eta 19, aurretik dagozanak handitzeko. Foru Diputatuak adierazo dauenez, 10 onuradunetatik 9k zerbitzuaren “balorazino positiboa” egiten dabe.

URDAIBAI BIRD CENTER ETA BASALAN

Saioa, Podemos Bizkaiak eta EH Bilduk egin dituen ahozko erantzun-eske bigaz bukatu da. Lehenengoan, Elsa Pamparacuatro batzordekideak, 2019an Urdaibai Bird Centerrek eukiko dauen aurrekontuaren ganeko interesa agertu dau. Elena Unzueta Foru Diputatuak esan dauenez, “2019rako sail honek ez dau ezelango partidarik aurreikusten”, hamar urte honeetan emon diran 4 milioi euro baino gehiagoak nahikoa izan dirala uste dauelako.

Bukatzeko, David Lopategi EH Bilduko bozeroaleak galdetu dau ea Basalaneko beharginek zergaitik estaldu ebezan izaera politikoa eukien margoketak, Oiz mendian egin zan Espainiako Vueltaren etapan. Unzuetak erantzun dauenez, Basalanen beharren artean “pistetarako sarbideak eta Oiz mendiko ingurunea garbitzeko eta egokitzeko beharrak dagoz, eta behar horreek Lurraldearen Garapenerako Saileko bide segurtasun, hobekuntza eta modernizazio zerbitzuak agintzen ditu”.

NOTA DE PRENSA

03/10/18

La Diputación Foral de Bizkaia niega haber recibido ninguna “denuncia formal” por maltrato de animales

“La Diputación Foral de Bizkaia garantiza la Ley de Bienestar Animal”. Así lo ha afirmado la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, en su comparecencia de esta mañana, cuando el Grupo Mixto le ha preguntado por el estado de los animales incautados en los Montes Triano en abril de este año. Asimismo, al hilo de esta afirmación, Unzueta ha aclarado que la Diputación Foral “no ha recibido ninguna denuncia formal” al respecto y que los animales “tienen buen estado de salud”.

“Lo que sí se han recibido han sido escritos presentados por los ganaderos propietarios de esos animales incautados y por ganaderos cercanos a estos, así como de un representante de la asociación animalista *Bere Ahotsa*”, ha añadido.

Tras mantener una reunión, el pasado 12 de septiembre, los animales fueron devueltos a sus propietarios, a excepción de “un ejemplar bovino que en el traslado falleció accidentalmente”. Asimismo, Elena Unzueta ha destacado la “actitud dialogante y constructiva” que ha mantenido la Diputación Foral, y ha reiterado que “vamos a seguir trabajando para reordenar esa zona de pastos”. Tal y como se acordó en la reunión, “queda pendiente sentarnos en breve con las asociaciones de ganaderos de la zona para presentar la propuesta que se planteó en la misma”.

Desde el grupo Nacionalistas Vascos, el apoderado Jesús Lekerikabeaskoa ha instado a “no entrar en ese juego mediático”. El juntero nacionalista, además de manifestar que “alguien ha querido hacer mucho ruido con este asunto”, ha puesto en valor el trabajo de trabajadores y trabajadoras del Departamento de Sostenibilidad. El juntero popular Eduardo Andrés también ha mostrado su apoyo a la Diputación asegurando que “no tenemos duda del adecuado trato que la Diputación Foral da a los animales que tiene acogidos”.

“Lo más importante es el hecho de que cada vez haya más transparencia para que esas dudas no se susciten”, ha declarado el apoderado del grupo Podemos Bizkaia, Josean Elegezabal.

Por su parte los y la representante de Socialistas Vascos, EH Bildu y Grupo Mixto han ahondado en la necesidad de que Diputación, ayuntamientos y asociaciones ganaderas logren un acuerdo. “Exigimos que la DFB ponga todos los medios encima de la mesa y empiece un proceso para que este tema se solucione ya”, ha manifestado el apoderado de EH Bildu, Mikel Kormenzana.

A este respecto, el grupo EH Bildu ha presentado una proposición no de norma que insta a la Diputación Foral a que “constituya a la mayor brevedad la mesa consensuada en la PNN aprobada en la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales de Bizkaia del 24 de octubre de 2012”. No obstante la iniciativa ha sido rechazada al contar solo con el apoyo de Podemos Bizkaia. El apoderado nacionalista Lekerikabeaskoa ha argumentado que la propuesta “no aporta nada nuevo respecto a lo que se aprobó hace

seis años”, y que “con todos esos pasos nos estamos acercando a la solución”. Grupo Popular y Grupo Mixto han optado por la abstención.

GARBIGUNES MÓVILES

A petición del Grupo Mixto, la Diputada Foral Elena Unzueta también ha detallado en qué va a consistir el proyecto de garbigunes móviles que la Diputación Foral pondrá en marcha a finales de octubre. Según ha explicado, ésta se trata de una iniciativa que tiene como objetivo acercar el garbigune al centro de los municipios “durante un tiempo limitado” para, además de dar el servicio de recogida de residuos, “sensibilizar a la ciudadanía y fomentar el uso del garbigune”. Actualmente un total de 55 ayuntamientos han mostrado interés por participar en esta iniciativa. Los garbigunes serán de acero “para una mayor resistencia contra los golpes y los posibles actos vandálicos”.

BANCO DE TIERRAS

Elena Unzueta ha tratado un segundo asunto planteado por el Grupo Mixto. Su portavoz, Arturo Aldecoa ha solicitado un balance del Banco de Tierras desde 2011 hasta 2017, así como las actuaciones previstas para 2018. Unzueta ha explicado que, desde 2011 se han adjudicado un total de 51 lotes, de cuales 32 han sido de primera instalación y 19 de ampliación. La Diputada Foral ha manifestado que existe “valoración positiva” avalada por 9 de cada 10 personas beneficiarias.

URDAIBAI BIRD CENTER Y BASALAN

La sesión se ha cerrado con dos preguntas orales planteadas por Podemos Bizkaia y EH Bildu. En la primera, la apoderada Elsa Pamparacuatro se ha interesado por la cuantía presupuestaria con la que contará en 2019 el Urdaibai Bird Center. La Diputada Foral Elena Unzueta ha manifestado que “de cara a 2019 este departamento no prevé partida alguna” al entender que los más de 4 millones aportados en estos diez años ha resultado suficientes.

Por último el apoderado de EH Bildu, David Lopategi se ha interesado por la razón por la que trabajadores y trabajadoras de Basalan ocultaron pintadas de carácter político de las carreteras durante la etapa de la Vuelta que tuvo lugar en Oiz. Unzueta ha manifestado que, entre las labores de Basalan estaba la de realizar “trabajos de limpieza y de acondicionamiento de los accesos de las pistas y del entorno del monte Oiz, encargados por el servicio de seguridad vial, mejora y modernización del Departamento de Desarrollo Territorial “.